



INES DIAZ DE VILAFRANCA ARZAMENDI, Zarautzko Udaleko idazkaria naizen honek

ZIURTATZEN DUT: 2019ko ekainaren 20an alkate jaunak honako DEKRETU hau (0777 zk.) erabaki duela:

"Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 11. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabilita,

ERABAKITZEN DUT

Lehen.- Ondoren adierazitako zinegotziei Udaleko arlo hauek kudeatzeko ardura ematea, eskumenaren titulartasuna laga gabe:

1.	Giza baliabideak:	Jesus Arana Gomez
2.	Ogasuna eta Finantzak (eskuordetzaren osagarri):	Jesus Arana Gomez
3.	Barne kudeaketa (Kontratazioa, Ondarea):	Iker Basurko De Miguel
4.	Garapen jasangarria, 2030 helburuak:	Iker Basurko De Miguel
5.	Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ):	Iker Basurko De Miguel
6.	Mugikortasuna:	Iker Basurko De Miguel
7.	Azpiegiturak, obra txikiak eta zerbitzuak:	Iban San Martin Hernandez
8.	IKT, e-administrazioa:	Jesus Arana Gomez
9.	Gobernantza Irekia, partaidetza eta elkarbizitza	Jesus Arana Gomez
10.	Euskara:	Irene Urbietta Alberdi
11.	Kultura:	Irene Urbietta Alberdi
12.	Hezkuntza:	Irene Urbietta Alberdi
13.	Turismoa:	Ixidor Larrañaga Ayerbe
14.	Jaiak:	Ixidor Larrañaga Ayerbe
15.	Toki garapen ekonomikoa (merkataritza, ostalaritza...):	Iker Basurko De Miguel
16.	Gizarte Politikak:	Jesus Arana Gomez
17.	Parekidetasuna:	Gloria Vazquez Herranz
18.	Lankidetzak:	Patxi Elola Azpeitia
19.	Agenda 21:	Gloria Vazquez Herranz
20.	Ingurumena:	Gloria Vazquez Herranz
21.	Ingurumen heziketa, baratzeak...:	Patxi Elola Azpeitia
22.	Kirolak:	Leire Arana Olabarrieta
23.	Boluntariotza eta gizarte ekimena:	Leire Arana Olabarrieta
24.	Immigrazioa:	Iratxe Zorrozuza Eguiazabal
25.	Gazteria:	Jon Andoni Urdangarin Urrutia

Bigarrena.- Ardura horiek eragina izango dute ordezkariak zinegotzi izaera duten denboran. Dena den, edozein unetan eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, kudeatzeko ardurak aldatu edo baliogabetu ahal izango dira.

Hirugarrena.- Dekretu hau izendatuak izan diren ordezkarietarako jakinaraztea, ardura onar dezaten. Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

Laugarrena.- Dekretu hau Alkatetzaren ebazpen-liburuan transkribatuko da, eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina."

Hala jasota gera dadin eta dagokion lekuan eragina izan dezan, ziurtagiri hau egin eta sinatzen dut, alkate jaunak ontzat emanda, Zarautzen 2019ko ekainaren 20an.

OE
Alkatea



Idazkaria

